



**ERABAKIA, [REDACTED] JAUNAK DIZIPLINAKO EPAILE
BAKARRAREN 2015eko MAIATZAREN 20ko EBAZPENAREN AURKA
JARRITAKO ERREKURTSOA BAIESTEN DUENA**

Espediente-zenbakia: 25/2015

AURREKARIAK

Lehena.- 2015eko ekainaren 9an, [REDACTED] jaunak Euskadiko Herri Kirol Federazioko Diziplinako epaile bakarraren 2015eko maiatzaren 20ko ebazpenaren aurkako errekurtsoa jarri zuen Kirol Justiziako Euskal Batzorde (KJEB) honetan.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtso hori izapidetzea onartu zuen, eta espedientea eskatu zion Euskadiko Herri Kirol Federazioari; era berean, entzunaldi-izapidea eman zion Federazio horri.

Hirugarrena.- 2015eko uztailaren 10ean, eskatutako espedientea igorri zuen Federazioak, alegazioen idazkiarekin batera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsu hau aztertzeko eskumena, hori xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.



Bigarrena.- Errekurtsogilea ohartarazpen batekin eta 2014ko azaroaren 9an egindako lehiaketa-ekitaldian lortutako emaitzaren deuseztatzearekin zigortu zen, eta, horren ondorioz, adierazitako ekitaldian lortutako dominak, puntuak, sariak edo beste edozein onura galdu zituen, arestian adierazitako lehiaketan egin zitzaion dopin-kontrolean Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 20ko 12/2012 Legearen 23.2 artikulua b) idatz-zatian dopinari buruz aurreikusitako arau-hauste larri bat egin izanagatik.

Hirugarrena.- Gaiari sakondu aurretik, komeni da errekurtsogileak egindako eskaera —hots, ebazpena deuseztatzeko eskaera— aztertzea. Hain zuzen, ebazpen hori eskumenik gabeko organo batek eman izanagatik deuseztatu behar dela dio .

Errekurtsogileak adierazi duenez, 12/2012 Legearen 37.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz "Espedienteak, betiere, bi hileko gehieneko epean ebatzi beharko dituzte kirol-federazioetako diziplina-organoek eta bereziki lotutako gainerako erakundeek. Laborategiak diziplina-organoari lortutako azken emaitzari buruz ematen dion jakinarazpen fede-emailetik kontatuko da epe hori. Dena dela, epe hori espedientea ebatzi gabe igarotzen bada, espediente hori edozein izapidetan egonda ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak hartuko du bere gain eskumena, eta hark jarraituko ditu aurreikusitako izapideak, espedientea amaitu eta ebatzi arte. Aurrekoa gorabehera eta espediente jakin batean agertzen diren inguruabarrak direla-eta, aurreko paragrafoan aipatzen den epea hilabete batean luzatu ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, baldin eta epea iraungi aurretik inork berariaz eskatzen badu".

Errekurtsogileak adierazi duenez, analisiaren emaitzen jakinarazpen-data ez dago jasota, baina erreferentzia gisa 2015eko otsailaren 26a hartuta (hau da, aldeztu aurretik jakinarazitako analisi horietan oinarritutako hasierako ebazpena eman zen eguna, honako hau adierazten baita: "Kirol



Zuzendaritzak IMIMaren Farmakologia Unitatearen analisiaren emaitza jakinarazi du..."), ebazpena 2015eko maiatzaren 20an eman bazen gainditu egin dira adierazitako 37.3 artikuluan aurreikusitako 2 hilabeteak.

Federazioa ez dator bat deuseztatzeko eskaerarekin, honako hau argudiatuta: "eskumena ez da automatikoki Administrazio Publikora eskualdatzen; aitzitik, Administrazio Publikoak bere gain hartu behar du. Beraz, eskumena bere gain hartzeko, Administrazio Publikoak esanbidezko egintza bat egin behar du, eta ez du eskumena bere gain hartuko egintza hori egin arte.

Laugarrena.- Federazioaren alegazioak, azken batean, ebazpena aginduzko bi hilabeteen ondoren eman dela onartzen du, eta Kirol Justiziako Euskal Batzorde hau ez dator bat haren tesiarekin, hots, Administrazioak esanbidezko egintza bat egin arte epe hori mugarik gabea dela dioen tesiarekin, esanbidezko egintza hori luzapenerako behar dela adierazten baitu zehatz-mehatz artikulua. Beraz, hitzen berezko adieraren arabera interpretazioak (Kode Zibilaren 3. artikuluari jarraituz), errekurtsogilearen alegazioa onartzera behartzen du Kirol Justiziako Euskal Batzorde hau.

Horren ondorioz, ez da bidezkoa gaiaren muinari ekitea, 12/2012 Legearen 37.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz ebazpena eskumenik gabeko organo batek eman baitu. Hortaz, EAeko Administrazio Publikoari dagokio ebazpena ematea arau-hausteak preskribatzen ez duen artean, 12/2012 Legearen 34. artikuluan aurreikusitako epeei jarraituz.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

**ERABAKI DU**

██████████ jaunak Diziplinako epaile bakarraren 2015eko maiatzaren 20ko Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoa baiestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edota errekurtsogileen helbidearen arabera dagokien epaitegian (helbidea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean badago), bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 19a.

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA